



NAFARROAKO HITZA

Eloisa Matheu Biologoa

Bihar eta etzi, hegaztien kanten ikastaroa emanen du Matheu biologoak, Zilbetin. Kantak aditu eta gogoan izateko gakoak izanen ditu hizpide, eta, besteak beste, okil gibelnabarra aditzeko aukera egonen da.

«Naturaren kontzertuak dira hegaztien kantuak, eta haiek aditzen ikasi behar dugu»

Kattalin Barber Zilbeti

Mendira joatea eta naturaren soinua entzutea plazera da Eloisa Matheurentzat (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1956). Biologoa da, eta urteak daramatza animalien soinua grabatzen eta gizar-teari erakusten. Asteburu honetan, Zilbetiko pagadian izanen da, eta hegaztien kantuei buruzko ikastaro bat emanen du.

Zer ikasiko dute parte hartzaileek?
Hegaztien kantuak ezagutzeko ikastaro praktikoa izanen da. Mendira joanen gara, eta, bertan, hegaztiak entzuten ditugu. Lehenengo, entzuten ariko gara, eta, gero, aditzen ikasiko dugu. Oso ohikoa da hegazti baten kantua ahaztea, eta, hori ez gertatzeko, garrantzitsua da ongi erreparatzea kantu bakoitzari, memorian gordetzeko eta ondoren gogoratzeko. Hegaztiak aditu ondoren, ikasgelan, grabazioak adituko ditugu. Mendian zer aditu dugun ulertuko dugu horrela.

Zein hegazti motaren kantuak entzuten dira Zilbetin?

Zilbetiko pagadian, basoko hegaztiak daude, gehienbat. Okil gibelnabarra dago, eta oso espezie interesgarria da, bakarrik inguru jakin batzuetan bizi delako. Horretaz gain, gerri txoriak, lepitzuliak, buztanluzeak eta kaskabeltzak adituko ditugu. Dena den, eguna iritsi arte, ez dakigu zer aurkituko dugun pagadian.

Eguneko zein momentu da onena kantuak aditzeko?

Dudarik gabe, egunsentia eta hurrengo bi edo hiru orduak dira egokienak, momentu horretan abesten dutelako gehien. Baita iluntzean ere, nahiz eta hainbeste ez kantatu. Gainera, udaberria da sasoirik onena, orduan ugaltzen direlako. Neguan mututu egiten dira hegazti gehienak.

Zergatik kantatzen dute?

Haien komunikatzeko era da. Arrek, adibidez, beren lurraldea babesteko eta emeak erakartzeko kantatzen dute. Kantuen bitartez, informazioa ematen diete emeei; haien adina, esperientzia eta desioa, besteak beste. Ikerketan ateratako ondorioak dira. Gainera, orain arte gutxi aztertu da, baliabiderik ez zegoelako. Beraz, oraindik txorien kantuen inguruan ez dugu dena ezagutzen. Orain izaten ari da goraldia. Nik animalien soinua grabatzen dut, eta ondare gisa gordetzen dut, gerora gizar-tean hedatzeko.

Zein da teknirik egokiena hegaztia haren kantarekin erlazioatzeko?

Aditza eta kantu bakoitzaren parametroetan —tonua, intentsitatea eta erritmoa, adibidez— erreparatzea. Zerbaitek atentzia eman badizu, horrekin gelditzea eta memorizatzen saiatzea. Izan daiteke kanta motela izateagatik edo oso zorrotza izateagatik. Mendian kantuak aditzen ditugu,

baina hor ez da gure lana bukatzen: aditutakoaren gainean lan egiten dugu. Gainera, hegazti batzuen kantuak lan gehiago eskatzen dute, zailagoak direlako. Aldi baterako, ikusmenaz ahaztu, eta gure entzumenean arreta jarri behar dugu. Azken finean, hegaztien kantuak naturaren kontzertuak dira, eta haiek aditzen ikasi behar dugu.

Zer behar du paisaia batek aditzeko egokia izan dadin?

Elementu guztiak eraldatu gabe eta harmonian egotea. Hau da, ez egotea ezer soberan, ezta ezer faltan ere. Kutsadura izan daiteke elementu kaltegarri bat, eta baita bertakoak ez diren espezieak ere. Baina mendian hegaztiak entzutea gozamina da; jarduera erabat baikorra eta aberatsa da. Egun, ez digute soinua aditzen irakasten, baina ahalegin hori egin behar dugu. Mundu erabat bisualean bizi gara, eta natura sumatzeko modu ona da kantuak aditzea.

Harrobia egin nahi dute Zilbetin, eta horrek arriskuan jarriko ditu pagadian bizi diren espezie guztiak.

Bai, horrela da. Ikastaro hau antolatzeke arrazoietakoa bat hori izan da. Zilbetiko egoera aditzera ematea eta, era berean, tokia eza-gutzea. Interes handiko lekua da Zilbetiko pagadia, eta harrobiak kalte egingen dio zentzu guztietan. Dagoen lasaitasuna eta baka hautesko du, eta erabat aldatuko du bizitza.

Izan gaitezten elkarren sostengu

BERRI Alagun harpidedun egiteak badu saria
Mendirako zeharkaldi makilak

OPARI ⁽¹⁾

EZAUGARRIAK:

- Neak Peak Extreme zeharkaldi makilak
- Kirte ergonomikodunak, apar-gomazkoak
- Luzera: 135 cm arte



forum sport

EGIN ZURE AUKERA:

- Asteartetik igandera
- Asteartetik ostiralera
- Ostiralean, larunbatean eta igandean
- Larunbaten eta igandean
- PDF harpidetza

Zure ziztada behar dugu
Hamarnaka kontatzen jarraitzeko



Hiruak-Bat elkartearen eskutik,
bi lagunentzako asteburu-pasa*
zotz egingo dugu BERRIaren
harpidedunen artean.

Saridunaren izena ekainaren 16an
argitaratuko dugu.

(1) Urtebeteko harpidetza egin ez gero jasoko da oparia.
* Bi gau + gosaria

berria ^{info}
hamarnaka
kontatzeako gara



Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info
www.berria.info/harpidetza